# GARAPENERAKO GKEetan GENEROAK DITUEN ERRESISTENTZIEN ANALISIA

Inkoherentziak bisibilizatzea
eraldaketarako estrategia gisa

# ANÁLISIS DE LAS RESISTENCIAS AL GÉNERO EN LAS ONG DE DESARROLLO

Visibilizando las incoherencias
como estrategia para la transformación

LORENA PAJARES SÁNCHEZ

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
LEHENDAKARITZA PRESIDENCIA



Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren Bibliotekak sarearen katalogoan aurki daiteke: www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac

| | |
|---|---|
| Argitaraldia: | 1.a, 2018ko martxoa |
| Egilea: | Lorena Pajares Sánchez |
| ©: | Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa<br>Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia |
| Internet: | www.euskadi.eus |
| Argitaratzailea: | Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia<br>Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco<br>C/ Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz |
| Itzulpena: | IZO |
| Diseinua eta maketazioa: | Biko Komunikazioa (Durango) |
| Inprimaketa: | G.Z. PRINTEK S.A.L. |
| Lege-Gordailua: | VI 230-2018 |

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la red Bibliotekak del Gobierno Vasco: www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac

| | |
|---|---|
| Edición: | 1ª, marzo 2018 |
| Autora: | Lorena Pajares Sánchez |
| ©: | Administración de la Comunidad Autónoma del Euskadi<br>Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo |
| Internet: | www.euskadi.eus |
| Editor: | Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia<br>Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco<br>C/ Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz |
| Traducción: | IZO |
| Diseño y maquetación: | Biko Komunikazioa (Durango) |
| Impresión: | G.Z. PRINTEK S.A.L. |
| Depósito Legal: | VI 230-2018 |

# GARAPENERAKO GKEetan GENEROAK DITUEN ERRESISTENTZIEN ANALISIA

Inkoherentziak bisibilizatzea eraldaketarako estrategia gisa

# ANÁLISIS DE LAS RESISTENCIAS AL GÉNERO EN LAS ONG DE DESARROLLO

Visibilizando las incoherencias como estrategia para la transformación

LORENA PAJARES SÁNCHEZ

ersilia género y desarrollo

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
LEHENDAKARITZA PRESIDENCIA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2018

# GARAPENERAKO GKEetan GENEROAK DITUEN ERRESISTENTZIEN ANALISIA

Inkoherentziak bisibilizatzea
eraldaketarako estrategia gisa

LORENA PAJARES SÁNCHEZ

# AURKIBIDEA

**01. Sarrera** ........ **11**

**02 . Metodologiari buruzko ohar laburra** ........ **13**

**03. Testuinguruan jartzen, feminismotik:**
**Generoa eta hirugarren sektorea** ........ **15**

**04. Baina zertaz ari gara erresistentziez hitz egiten dugunean?** ...... **19**

4.1 Generoaren kontrako erresistentzien azterketan
ibilitako bidea ........ 20

**05. Generoaren kontrako erresistentziak sailkatzeko proposamena** ... **25**

5.1 Pertsonen erresistentziak ........ 26

5.2 Erakundeen erresistentziak ........ 33

**06. Funtsezko gakoak** ........ **41**

**07. Eztabaidatzen hasteko azken gogoetak** ........ **45**

**Bibliografia erreferentziak** ........ **106**

# EGILEAREN OHARRA

Testu hau bi fasetan, 2014 eta 2016 bitartean, egindako ikerketa baten emaitza da, eta horien zati batzuk argitaratu dira. Azterketaren argitalpen osoa esku artean edukitzekotan, ezinbestekoa izan da Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren interesa, berak txertatu baitu, bere genero-estrategia transbertsalaren lehen jarduketa-ardatz gisa, “Genero-ikuspegia instituzionalizatzeko prozesuak bultzatzea, bai euskal lankidetza-eragileengan, bai GLEAren barruan ere” [1], eta lehenesten baitu —hori egiten duen lehen lankidetza-agentzia da Espainian— generoaren kontrako erresistentziak aztertzea horrelako prozesuen baitezpadako parte gisa. Beraz, argitalpen honek lan hauen edukia jasotzen, sakontzen eta emendatzen du: batetik, “Las resistencias al género en el desarrollo: brechas entre discursos y prácticas de las ONG de desarrollo” artikulua, 2017ko urtarrilean argitaratua Garapen eta Lankidetzaren Unibertsitate Institutuaren (UCM) Revista Española de Desarrollo y Cooperación aldizkariaren 39. zenbakian, eta, bestetik, ‘Noviembre Feminista 2016’ kongresuko (UCM) “Estrategias feministas de lucha política, análisis y deconstrucción del orden social” mahaian aurkeztutako komunikazioa (laster argitaratuko baita Tejiendo Redes, Transformando Realidades liburuaren parte gisa, UCMren Ikerketa Feministen Institutuaren eskutik).

Bihotz-bihotzez eskertu nahi diot Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari alderdi ukigaitzenei heltzera ausartu izana eta, zehazki, eskerrak eman nahi dizkiet Edurne Bengoetxea Sorozabal Genero eta Garapeneko arduradunari eta Silvia de Gregorio Etxebarria Euskadiko GGKEen Koordinakundeko Ikerketa, Trebakuntza eta Generoko arduradunari, hemen aurkezten den ikerketan parte hartzea onartzeagatik bere garaian, hura zabaltzeko jasotako laguntzagatik eta biek erakunde gero eta eraldatzaileagoak lortzeko egunero egiten duten lanagatik.

1 Garapenerako Lankidetzaren 2014-2017 aldirako III. Plan Zuzentzailea. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, Eusko Jaurlaritza. 45. or.

“Ezin zailago da gizonei utzaraztea aurreiritziz soilik dituzten usteak, ezen ez besarkatu dituztenak konbentzigarrien eta sendoen iruditu zaizkien arrazoien kariaz. Iritzion artean sar dezakegu eskuarki pentsatu ohi dena bi sexuen diferentziari buruz eta beronen mendeko guztiari buruz. Ez dago ezer hain zaharra eta unibertsala denik”.

POULAIN DE LA BARRE, 1673

# 01.

# SARRERA

Non ere Boterea baitago, erresistentzia dago Boterea galtzeko. Foucalten esaldiaren parafrasi horrek egitatea bat erakusten du, eta egitate horren berri badaki aldaketa-prozesu batean sartutako edozein erakundek. Azterketa honen oinarria uste sendo bat da, alegia: antolaera aldatzeko prozesu guztiak eta, zehazki, genero-prozesuak ez direla kontu tekniko hutsa, baizik eta politikoa eta kulturala: eragiten diete erakundeen bihotzari berari, erakundeak osatzen dituzten pertsonen bizi-kalitateari, beren erakundeak eta gizarteak garatzen eta hobetzen laguntzeko dituzten aukerei eta haien aurrerapenei onura ateratzeko aukerei. Prozesuok funtsezko kultura-aldaketak ekartzen dituzte, eta hauek erresistentziak eta beldurrak sor ditzakete, etorkizunari buruzko ziurgabetasuna sortzen dute eta. Batzuetan, beldur horiek edozein talderen aldaketarako erresistentzia orokorrei lotuta daude; beste batzuetan, haien funts argia da finkatutako botere-harremanak ezegonkortu ahal direla eta pribilegioak galtzeko erresistentzia dagoela. Begi-bistakoa eman dezake eta, hala ere, zenbait eremutan zailagoa da hura argitara ematea, bereziki nahitaez eraldaketari lotzen zaion egitekoa duen sektore batean: garapenerako gobernuz kanpoko erakundeetan (GGKE).

Gai hori arrakalak sortzen ari da erakundeetako pertsonen arteko harremanetan. Hala ere, orobat ditu aliantzak sortzen, loturak sendotzen, banakako eta erakundeetako nortasunei buruzko gogoetak eta ikaskuntzak ekartzen, botere-harremanen berrikuspen kritikoak eginarazten eta, batez ere, askotan erakunde-kulturaren zutoin ikusezinak diren sinesmen, jardunbide, ohitura eta arau sexistak zalantzan jarrarazten.

Ikerketa honen bidez, esperientzia horiei buruzko jakintzan sakondu nahi dugu eta generoaren kontrako erresistentziak babesten dituzten diskurtsoak eta adierazpen praktikoak argitu. Izan ere, sinetsita gaude ezen, jarraitzeko ibiltzen GGKE batzuek leku justuago eta ekitatiboago batera heltzeko hasi duten aldaketa-bidean, sakondu beharra dagoela, ez soilik aldaketa-prozesu horien garapenari eta eraginari buruzko ezagutzan, baita indargabetu nahi dituzten oztopoen ezaugarrien inguruko jakintzan ere.

Zertarako? Asmo bikoitza du —dut—,[2] teorikoa eta politikoa: Alderdi praktikoan, artekaritza-, kudeaketa- eta gainditze-estrategiak sistematizatzea, konektatzea, partekatzea eta proposatzea, erresistentziei aurre egiteari begira etorkizuneko genero-prozesuak eta ekitatearen aldeko neurrien ezarpena sustatzeko. Eta alderdi ideologiko eta politikoago batean, *militantziaren jasangarritasuna*[3] sostengatzea arlo pertsonalean eta koherentzia eta eraldaketa sozialeranzko bideak bilatzea arlo kolektiboan.

**2** Lourdes Méndezek antropologia feministaren asmo bikoitz hori esplikatzen du, eta bi antropologo motaren artean bereizten: "batzuek, sexuen arteko harremanak desnaturalizatuz eta problematiko bihurtuz, beren analisia gauzatzen dute tresnak eta horien eraldaketarako bideak proposatzeko helburu politikoarekin; bestetzuk, nahiz eta ez dituzten ukatzen sexuen arteko harremanei datxezkien gatazkak, ez datoz bat helburu horrekin" (2008, 103. or.).

**3** Ez dugu militantzia aipatzen "indibidualismo heroikoarekin" lotutako zentzu zabalenean. Hemen, *militantziaren jasangarritasuna* honekin lotzen da: "maite duzun lana egiteko gai izatea baina, aldi berean, pertsona oso eta zoriontsua izaten jarraitzea zure bizitzako alderdi guztietan. Salbu sentitzea, konektatuta sentitzea. Onartzen, errespetatzen eta balioesten zaituztela sentitzea, zaren pertsonagatik eta egiten duzunagatik hein berean. Edozein adin duzula eta edozein arlotan diharduzula ere. Orekan bizitzea. Benetakotasunean. Zeure balioekin bat etorriz" (Barry eta Djordjevic, 2007:3-4).

# 02. METODOLOGIARI BURUZKO OHAR LABURRA

Urteak emanik aholkularitza-lanetan, eta parte harturik “berdintasunik gabe ez dago garapenik” kontsignarekin lotutako hainbat trebakuntzatan, proiektutan eta genero-prozesutan, haiek guztiek elkarrekin zuten zerbait geratu zen agerian: erresistentziak. Gutxi-asko sotilak edo esplizituak izaki, bazihoazen azaleratuz, laguntza tekniko berri bakoitzarekin azaleratuz, baina une hartan ez ziren ikergai. Zenbait urteren buruan, ziur jakinik bazegoela kontakizunen eta esperientzien multzo bat non partekatzen zen eredu argi baina ikusezin bat, abian jarri zen ikerketa hau. Hasteko, multzo hori berrikusi genuen, erresistentziak prozesu induktibo batean identifikatu, sistematizatu eta katalogatzeko, eta, gainera, horri buruzko agiriak analizatu genituen. Bigarren fasean, elkarrizketatu eta elekatu genituen GGKEetako genero-arduradun eta militante feminista batzuk

zeinek ekitatearen aldeko aldaketa-prozesuak egin baitituzte edota genero-estrategia edo berdintasun-plan bat baitute (edo prestatzen ari baitira); horri esker, sistematizazio-proposamena osatu eta balioetsi genuen, gaian sakondu eta, batez ere, ezagutu eta baliarazi genituen holako prozesuetan "aurreskua hartzen" dutenen bizipen pertsonalak.

Gaur egun, ikerketa-prozesuak zabalik dirau. Edukia, edozein prozesu bizirena bezala, findu, osatu, zehaztu egiten da erakunde desberdinetako feministekin izandako elkarrizketa, laguntza tekniko eta topaketa berriez. Eta hurrengo urratsetarako gordea dugun desioa partaidetza-espazio bat sortzea da, non, guztion artean, hasi ahalko baitugu gatazkak konpontzeko eta erresistentziak kudeatzeko estrategiak partekatzen eta eraikitzen, horien bidez geure burua tresna pertsonalez eta kolektiboez hornitzeko, eraldaketaren bidea lautzen laguntzeari begira.

# 03. TESTUINGURUA FEMINISMOZ: GENEROA ETA HIRUGARREN SEKTOREA

GGKEetan dauden generoaren kontrako erresistentzia-motak analizatzen hasi aurretik, garrantzitsua da testuinguruaren funtsezko elementu pare bat nabarmentzea:

Lehenengo elementua da genero-gaietan Espainiako GGKEek egin duten ibilbidea, bai beren proiektuetan, bai beren barne-eremuan; ibilbidea duela gutxi hasi zen, baina nahikoa izan da erakundeak "generoaz mintzatzeko" behar den hizkuntza teknikoaz hornitzeko. Zenbait erakundek 80ko eta 90eko hamarkadetan ekin zioten ibilbideari, MED ikuspegitik GED ikuspegira[4] pasatzeko helburuan oina-

**4** "Emakumeak garapenean" eta "generoa garapenean" izeneko ikuspegien gaztelaniazko siglak. Informazio gehiago nahi izanez gero, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen aurkezpen hau kontsulta daiteke: https://prezi.com/kxtgosotjqld/enfoque-med-enfoque-ged/ (17-12-20).

rritutako diskurtsoarekin eta funts teoriko feminista batekin; hala ere, kasu askotan horrek generoa "teknifikatzea" ekarri zuen, zeren gehiegi ardazten baitzen lantzeko tresna eta tekniketan eta ahazten baitzuen analisi kritiko eta politikoa. Agertoki horretan, 2005-2008ko Espainiako Lankidetzako II. Plan Zuzentzaileak lehenengo aldiz txertatu zuen genero-ikuspegia garapen-politiketan lehentasun gisa; horrek GGKE asko animatu zituen generoa printzipio zuzentzailetzat hartzera eta beren jarduketetan sartzera. Halaber, Natalia Navarrok (2004) "ekitatearen aldeko organizazio-aldaketako prozesuak" deritzenak abiarazi zituzten edota berdintasun-planak inplementatu zituzten.

Genero-agendan aurreratu ahala, zenbait ahotsek ohartarazi zuten generoa gehiegi teknifikatzen ari zela eta garapenean *birpolitizatu* beharra zegoela, hots, erakundeen bihotzean ere politiko bihurtzea, haien jarduketetan erreal izan zedin: hala, jokalekuan sartzen dira GGKEetan aldaketa politiko eta kulturalak sustatzeko prozesuak eta, beraz, hor hasten dira erresistentziak azaleratzen. Eta, halaber, badirudi une horretan banandu zirela diskurtsoa eta praxia, eta arrail ikusezina baina ondorio ukigarriak dituena sortu zen erakundeetan, haien lanean eta haien eraldatzeko gaitasunean. Arrail horren norainokoa eta ibilbide horrek diskurtsoen eraikuntzan izan duen eragina ulertzea funtsezkoa da erresistentziak identifikatzeko zailtasun erantsia ulertzeko.

Bigarren elementuak gizarteak hirugarren sektoreaz duen pertzepzioarekin du zerikusia, sektore hori berdintasunari, justiziari eta elkartasunari lotzen baitzaie. José A. Lópezen arabera (2007), gizarteak "ekintza altruista edo solidario antolatuaren paradigmatzat" jotzen ditu erakunde horiek. Horrek haien irudiari, diskurtsoari eta balioari buruz sortzen duen ustekizuna barneratu egiten dute erakundeok osatzen dituzten pertsonek. Beraz, galde genezake: ezin al dira erakunde horiek berdintasunik ezaren berregile izan?

Sandra Dema Morenoren ustez (2008), GGKEen ustezko progresismoa onartzen da, eta horrek inbisibilizatzen ditu erakundeotako berdintasun ezak; hortaz, zaila da ikustea gizarte-ordena patriarkala ekoizten eta erreproduzitzen dutela. Hala ere, ez dugu ahaztu behar erreferentziako kultura-maila osatzen duten eta, beraz, erakundearen bizitza eta kultura bermatzen dituzten gizarte-arauen barruan daudela (Rao eta Kelleher, 2002). Elkarrizketatutako pertsonetako batek azaldu zuenez, *"uste dugu GKE izateagatik ez dauzkagula arazo jakin batzuk, baina badaude, gizartearen isla baikara, eta ez gara jabetzen horretaz, ez garela hobeak; interesatzen zaigulako izango da"*. Pertzepzio hori indartu egiten da gizarteak oro har bizi duen "berdintasun-ameskeriarekin": *"aurreiritzi indartsuena da pentsatzea berdintasun eza kanpoan gertatzen den zerbait dela eta erakundean gaindituta dagoela"*.

Deskribatutako funtsezko elementu bien (generoko ibilbidea eta GGKEen pertzepzio soziala/autopertzepzioa) lotura-puntuan sartzen da jokoan erresistentziei buruzko azterketaren berezitasuna eta aldaketa-prozesuek mota horretako erakundeetan duten zeregina: Garapeneko berdintasunari buruzko diskurtsoak gauzatuak eta ondo eginak dira, eta, gainera, zenbait azterketak baieztatzen dute zaila dela ekitatearen aldeko GKEen ekimenak kulturalki sinbolikoak diren emaitzez harago joatea (Lee-Gosselin, Briere eta Ann, 2013). Hortaz, pentsa daiteke generoa dela diskurtsoen eta praxiaren artean, erakunde-kulturaren kanpoeneko eta barneneko geruzen artean, inkoherentzia gehien agerrarazten dituzten eremuetako bat (Pajares, 2017). Beste elkarrizketatu batek hau baieztatu zuen: *"erakundea diskurtsoaren boterearen biktima da; hau da, emakumeen eskubideen alde gaude, jakina, (...) baina diskurtsoa hain indartsua da non jendea ez baita jabetzen erakundearen barruan dagoen berdintasunik ezaz."*

Horren guztiaren ondorioz, generoko erakunde-kulturaren analisia bereziki labaina da eta zaila egiten da erresistentziak identifikatzea;

izan ere, *"maila sotilago batean daude, diskurtso landu batekin... horrelako gogoetetarako ia errazagoa da ezer ez duten erakundeetan egotea"*. Beste parte-hartzaile batek zera azaldu zuen: *"eguneroko gauzei begiratzen badiegu, argi eta garbi ikusten da botere-harremanak nola errepikatzen diren (...), baina, mahai gainean jartzen baduzu, jendeak ukatu egingo du, ez datorrelako bat GKEok geure buruaz dugun pertzepzioarekin eta irudiarekin. Horri dagokionez, erakunde-kultura pixka bat eskizofrenikoa da"*. Horregatik, erakundeen barruko ekitatearen aldeko prozesuek funtsezko zeregina dute hori argitara emateko eta alderdi pertsonal eta subjektiboaren berrikuspen kritikoa egiteko, asmo politiko feminista batekin. Hala ere, oztopo "txiki" bat dago: alderdi horrek eragiten ditu erresistentzia gehien (Navarro 2003 eta 2007, Bastardes eta Franco, 2006, Murguialday *et al*., 2009, Lee-Gosselin *et al*., 2013); izan ere, Lagardek azaltzen duen moduan, "gizartea, arauak, sinesmenak aldatzeak (...) ezinegona sortu ahal die pertsona eta erakunde kontserbadore eta zorrotzenei, ordena patriarkala gehien onartu eta adostu dutenei" (1996:20): *"une larrienetako bat diagnostikoa egiten hasi ginenean izan zen, Pandoraren kutxa zabaldu zelako, (...) hor hasi ginen ikusten nork hartzen dituen erabakiak eta nola, profilak, ahalduntze-mailak... (...) horregatik izan zen zaila, asaldatu egiten duelako"*.

# 04. BAINA ZERTAZ ARI GARA ERRESISTENTZIEZ HITZ EGITEN DUGUNEAN?

Hizpide dugun kontzeptua ez da eskuarki aplikatzen zaiena azpiratze-sistemen kontrako asaldura edo erresistentzia politikoko mekanismoei, baizik eta generoaren antolamendu soziala hobetzeko eta eraldatzeko proposamenen aurkako jarrera, zeren eta, nahiz eta justizia- eta berdintasun-kuota handiagoak ekarri, pribilegioen galera ere eragiten baitute. Aldaketa saihesteko estrategia gisa, zerbait onartzeari edo betetzeari uko egitea dakar, eta *statu quo*a gordetzearen aldeko jarrera erakusten duen fenomenoa da, baita aldaketarako oztopo komun eta kaltegarriena ere (Mergaert eta Lombardo, 2012, García Martínez, 2002). Natalia Navarroren arabera, “aldaketa-mota orok erresistentzia pertsonalak eta kolektiboak dakartza berekin, zeinak lotzen baitzaizkie baliabideen eta erantzukizunen birbanaketari eta lehentasunen berresleipenari ” (2007:25).

Barne-langetan eta eragin-faktoreetan gauzatzen dira, zeinek galgatzen baitituzte genero-berdintasunaren aurrerapenaren aldeko ekintza baten efektuak (Fernández Villanueva, 2010), eta haien presentzia hainbat nabariagoa izango da zenbat eta erakunde batean sustraituagoak egon botere-harreman patriarkalak edo maskulinotasunaren kultura (Lombardo eta Mergaert, 2013). Horrela, baldin ulertzen badugu Foucaultek botereaz azaldu zuena —“ez da unibokoa, ez da beti berdina, ez da beti modu berean erabiltzen, ez du jarraitutasunik, boterea harreman estrategiko konplexuen sare teilakatua da” (Giraldo, 2006:108)—, ulertuko dugu boterea galtzeko erresistentziak hori bezain konplexuak izan daitezkeela eta sare horretako edozein gako edo haritan ager daitezkeela; beraz, osorik jarri behar da zalantzan. Boterearen konfigurazio politikoaren eremuan barneratzean, erresistentzia-kategoriak ahalbidea emango du erakundeen harreman-sareko hari patriarkalen mekanismo sotilak kartografiatzeko eta hura eraldatzeko estrategiak proposatzeko. Bada, erresistentzien gaia analisien erdigunean ipinitakoan, azterketa enpirikoek prozesua gertatzen deneko erakunde-testuingurua araka dezakete eta erresistentziok kudeatzeko eta deuseztatzeko bideak argi ditzakete (Lombardo eta Mergaert, 2013).

## 4.1. Generoaren erresistentzien azterketan ibilitako bidea

Genero-azterketen gaia bere osoan hartuta, generoaren kontrako erresistentziei buruzko bibliografia espezifikoak azterketa-tradizio zabalagoa du mundu anglosaxoian eta Europako gainerako tokietan Espainian baino. Horrela, Margrit Eichler Torontoko Unibertsitateko irakasle emerituak, jadanik 80ko hamarkadan eta genero-ikuspegia ikerkuntzan txertatzeari buruzko azterketa batean[5], lau sexismo-adierazpen nagusi seinalatu zituen, zeinek generoaren

5 *Non-sexist Research Methods. A practical guide.* 1987. Routledge

kontrako erresistentzia gisa funtzionatzen baitute: androzentrismoa (eta, haren muturreko forma gisa, ginopia eta misoginia), gehiegizko orokortzea eta gehiegizko espezifikotasuna, genero-sentiberatasunik eza (generoa aldagai gisa alde batera uztea) eta neurri biko erregela.

Orduz geroztik gaur egun arte, generoaren kontrako erresistentziei buruzko azterketek garrantzia hartzen jarraitu dute, eta, hain zuzen, 2013an *NORA* (Nordic Journal of Feminist and Gender Research) ikerketa feministei buruzko aldizkariak horren inguruko zenbaki berezi bat argitaratu zuen, “Feminist resistance – Resistance to feminism” izenburukoa. Azterketa-eremuak aldatu egiten dira, eta horietako ikusgaienetarik bat trebakuntzaren kontrako erresistentziei dagokiena da, Lombardo eta Mergaertek (2013) azaldu zutenez, eta hori da generoa politika publikoetan transbertsalizatzeko erronka nagusietako bat. 2015ean, NBE Emakumeak erakundeak[6] horrelako erresistentzien inguruko solasaldi birtual bat antolatu zuen, honako helburu honekin: “gogoeta egitea genero-berdintasunerako trebakuntzaren kontrako erresistentziak dituen ezaugarriez eta arrazoiez, baita erresistentziak gainditzeko eta aldaketa eraldatzaile baterako baliatzeko estrategiez ere” [7].

Beste egile batzuek, hala nola Marjorie DeVaultek edo Marcela Lagardek, barneneko eremu batean arreta jarrita, hau nabarmendu dute: “emakumeen arteko loturen eraikuntzak salatzen ditu genero-kontzientzia eraikitzeko erresistentzia eta ahultasun konplexuak” (DeVault, 1996). Gainera, agerian jarri dute erresistentzia pertsonalek gehien zaildu ditzaketela aldaketa-prozesuak, nahiz eta Fernández Villanuevaren ustez (2010) arazoaren gakoa ez den erresistentzia horiek egotea, baizik eta ezezagunak izatea eta jendeak nola funtzionatzen duten ez jakitea eta jakin nahi ez izatea.

6 Nazio Batuetako Genero Berdintasunerako eta Emakumearen Ahalduntzerako Agentzia.

7 *Webinar* edo solasaldi osoa hemen eskuragarri: https://youtu.be/TIK7X69Yveg (20/12/17).

Garapenerako lankidetzan azaltzen diren generoaren kontrako erresistentzien esparruan, funtsezko bi egile daude. Sara Longwe da bat. "The evaporation of gender policies in the patriarchal cooking pot" artikuluan (1997), zalantzan jarri zuen genero-politikek eta -ekintzek lankidetza-agentzien mekanismo burokratikoen barruan "lurruntzeko" duten joera. Zehazki, "politikaren lurrunketa" deitu zion prozesu honi: "programa politikaren adierazpenetik haren inplementaziora mugitzen den neurrian, [genero-helburuak] pixkanaka gutxiagotzea". Hori hala gertatzen da batera existitzen direlako "ageriko burokrazia" eta "patriarkatu estali" bat zeinak ahalbidetzen baitu bere interesak arriskuan jartzen dituzten politikak eta zuzentarauak iraultzea. Longwek ondorioztatu zuenez, "ezin dugu jardun burokrazia politikoki neutrala balitz bezala, (...) (izan ere,) funtsezko zeregin bat bete dezake patriarkatua gizartean mantendu eta erreproduzitzeko" (*op. cit.*, 156. or.).

Bigarren egilea Caroline Moser da, zeinak, garapen-proiektuen genero-ebaluazio baten testuinguruaz baliatuta, kritika bat egiten baitzuen horietan generoa transbertsalizatzeko zailtasunen inguruan, galdera honen bidez: "Lurrunketa, inbisibilizazioa edo erresistentzia?" (Moser *et al.*, 2004). Halaber, kontzeptu horietan oinarrituta katalogatu zituen ebaluazioan aurkitutako zenbait jardunbide.

Espainian, zenbait egilek zabal erabili dute lurrunketa-kontzeptua. Esate baterako, Nava San Miguelek erresistentzia-mekanismotzat jotzen du lurrunketa, eta, haren aburuz, generoa erdigunean kokatzen duen garapen-agenda bat eraikitzeko erronketako bat da, generoa konnotazio politiko orotik bereizteko joerarekin batera. Analisi ugari bat datoz kritika horrekin (San Miguel 2009; Longwe, 1997; Navarro, 2003 eta 2004; Bastardes eta Franco, 2006).

Dena den, oraindik eskasak dira GGKEetako erakunde barruko genero-prozesuen eremuan, sortzean, garatzean eta abian jartzean sortu-

tako erresistentzien analisiak (Lee-Gosselin, *et al.*, 2013), nahiz eta azterketa gehienek aipatzen duten haiek kudeatzeko beharra (Rao eta Kelleher, 2002; Bastardes eta Franco, 2006; Dema Moreno, 2008; Murguialday *et al.*, 2000; Navarro, 2003 eta 2007). Espainian, GGKEen zenbait genero-diagnostiko egin dira autonomia-erkidegoetan, eta denek aipatzen dute badirela erresistentziak ekitatearen aldeko neurrien kontra, baina gutxik jartzen dute arreta horietan eta gutxik ematen dituzte horien adibideak edo sistematizazioak.

Horrela, GGKE katalanei buruzko azterketak egiaztatzen du erresistentziak agertzen direla "entzute delarik genero-ikuspegiak boterearen eta erabakiak hartzeko aukeraren birbanaketa dakarrela" (Bastardes eta Franco, 2006), eta Euskadin egindakoak (non ekitatearen aldeko prozesuek finantzaketa publikoa jasotzen baitute 2008. urtetik[8]) hau ohartarazten du: "genero-ikuspegia dinamika instituzionalean txertatzeak gatazkak eta erresistentziak dakartza, zeren botere-harremanak aurrez aurre jartzen baititu zalantzan" (Murguialday *et al.*, 2000). Hala ere, ez du adibiderik garatzen edo gehitzen. Hori bai, Euskadin genero-prozesuak diagnostikatzeko eta ebaluatzeko prozesuarekin jarraitu zen, eta GGKEen Koordinakundeak barne-prozesu bat sustatu zuen erresistentzien inguruan hausnartzeko; oraindik abian dago eta oraingoz badirudi estatuan horri dagokionez egon den esperientzia bakarra dela.

Bestalde, Andaluziako diagnostikoak nabarmentzen du erresistentziek transbertsalizatzeko zailtasunak dakartzatela eta ohartarazten du ezen genero-ikuspegia inbisibilizatuz eta urtuz doala diskurtso teorikoa praktikan instituzionalizatzeko eta aplikatzeko prozesuan, (Aguirregomezkorta eta Soler, 2005). Ez dago adibiderik, baina funtsezko oztopo bi azaltzen dituzte: genero-estrategiari buruzko ezagutza

**8** Urteroko laguntzak, legez ezarriak 197/2008 Dekretuaren bidez, zeinaz laguntzak arautzen baitira, Euskadin garapen-lankidetzan diharduten erakundeek beren antolaera aldatzeko prozesuak gauzatu ditzaten genero-berdintasunaren alde, finantzatuz genero-diagnostiko parte-hartzaileak eta ekitatearen aldeko ekintza-plan estrategikoak.

eta ulermen urria eta inplementatzeko erakundeek duten laguntza eskasa. Asturiasko GGKEen azterketak sistematizatu egiten ditu antolamendu- eta jarrera-erresistentziak, eta erresistentzia maskulinoak berariaz nabarmentzen ditu genero-ikuspegia txertatzeko zailtasun gisa (Dema Moreno, 2009), baina proiektuen onuradunez ari da eta ez ditu erakundeko langileak aipatzen. Gaineratzen du GGKE asko arazo horien jakitun direla baina ez dutela horiei heltzeko formularik prestatu.

Beraz, ikusten dugu oraindik jauzi kualitatiboa egin behar dela erresistentziak analizatu eta sistematizatzeko orduan genero-transbertsalizazioko diagnostiko eta prozesuetan. Halaber, generoaren, boterearen eta erresistentzien arteko harremanari buruzko teoria analitiko bat egin behar da; izan ere, Lombardo eta Mergaertek baieztatzen duten moduan:

> “erresistentziaren analisiak (…) ezagutarazi ahal du zehatz-mehatz zeri jartzen dioten erresistentzia jendeak eta erakundeek, dela genero-arauak aldatzeko mezua, sustatutako aldaketaren eragileak, genero-berdintasuna helburu gisa, edo generoko gaikuntza-ikastaroa (edo prozesua) bera (2013, 307. or.)”.

# 05. GENEROAREN ERRESISTENTZIAK SAILKATZEKO PROPOSAMENA

Lehenengo eta behin, argitu behar da ezen, hala nola bizitza ezin den esperientzia eta kategoria estankotan banatu, erresistentziek, aldaketako bizi-prozesuetan daudenez gero, badituztela ertz, bide eta itxura asko. Horren harira, sailkapenak ez dakar kategoria bakanduetan zatitzea, baizik eta haien adierazpenak bisibilizatzeko ariketa funtzionala egitea, nahiz eta elkarri lotuta dauden eta, batzuetan, erresistentzia bat izan daitekeen mota bat baino gehiagokoa aldi berean. Hori onartuta, bidezkoa dirudi lehen sailkapena egiteko Robbinsek proposatutako zatiketa[9] erabiltzea, zenbait egilek baliatu baitute eta pertsonei eta erakundeei dagozkienak bereizten baititu.

9 Stephen Robbins (*Comportamiento Organizacional*, 1998), aipamena: García Martínez, 2002.

## 5.1. Pertsonen erresistentziak

Mota honetako erresistentziek uztartzen dituzte oinarrizko giza ezaugarriak (hala nola pertzepzioak, sinesmenak eta nortasunak) eta beharrizanak (hala nola ezezagunaren beldurra edo pertzepzio selektiboa)[10]. Hemen honela zertzen dira: “jarrera antifeministak, oso sotilak, barne-galga gisa dihardutenak, aurrerapena bera barrutik galaraziz. Berdintasunezkoak ez diren genero-irudikapenak eta etorkizun-itxaropenak dira (...) eta beti ez dira kontzienteak eta aitortuak” (Fernández Villanueva, 2010:98). Mota horretako erresistentziak, aldi berean, zenbait adierazpen eduki ahal dituztenez, proposatzen dut Lagardek akulturazio feministako prozesuez hitz egitean emandako lau kategoriak erabiltzea sistematizatzeko esparru gisa[11]:

### A. Erresistentzia (anti)intelektualak

Adierazpen hauek dira: “genero-ezjakintasuneko erantzun petralak, zeinek enpirismoa eta pragmatismoa errebindikatzen baitituzte azterketaren, analisiaren, gogoetaren eta pentsamendu kritikoaren aurka” (Lagarde, 2000:13). Badakarte jarrera bat ukatzen dituena feminismoaren izaera ilustratua eta, beraz, hartatiko jakintza. Honela ager daitezke:

- Garrantzia kentzen delarik, generoa zer den ez jakitearen ondoriozko jarrera axolagabeen eta/edo arbuiatzaileen bidez, edo defentsazko jarreren bidez: *“Buruan buelta gehiegi ematen dituzu, denok berdinak gara eta kito. Nik berdin tratatzen ditut denak”; “Kontua ez da niri inporta ez zaidanik, baina oraintxe bertan ez da nire lehentasuna”; “Ez dugu berariazko neurririk behar guk ez*

**10** Informazioaren prozesamendu selektiboaz ari da: gizakiok komeni zaiguna hautatzeko eta gustuko ez duguna arbuiatzeko dugun gaitasuna (Robbins, 1998). Hemen aipatuta: García Martínez, 2002.

**11** Lagarderen aburuz, feminismoa *kultura bat da* eta ez bakarrik mugimendu bat; beraz, akulturazio feministako prozesuez hitz egin genezake, honako hau aipatuz: “feministen ikusmoldeen, balioen, ezagutzen, praktiken eta esperientzien transmisioa hegemonismo patriarkaleko egoeran” (2000:2).

*dugulako bereizkeria egiten, gauza bera egiten dugu gizonentzat eta emakumeentzat"*[12].

- Aldaketa-mezuaren sinesgarritasuna zalantzan jartzen delarik; hori, elkarrizketatu baten hitzetan, *"etengabea ere izan daiteke, beti gudu berri bat hasteko erabakia hartu beharko bazenu bezala"*, *"[ohikoa da] zalantzan jartzea, esaterako, diskurtso bat subjektibotzat jotzea, (...) ikuspegi androzentrikoa ere subjektibotasun baten emaitza ez balitz bezala"*, edo aldaketa-eragile baten hitzetan ere (*"hark mutur lar emozional batera eraman du eta agian ematen du gaitasun analitikoa galtzen duela"*). Horrek, azkenean, nork bere burua zalantzan jartzea eragiten du: *"planteatu izan dudanean, esan didate oso modu pertsonalean hartzen dudala, eta azkenean pentsatzen dut: neu izango naiz?"; "ez dakizu ea gertatzen ari den edo imajinatzen ari zaren: 'noraino naiz ni, ganbara pitzatzen ari zait eta' ala zer"*.

- Datuak gutxiesten direlarik (*"hemen batez ere entzuten dugu hori hemen ez dela gertatzen edo oso gauza esajeratuak direla"*; *"lehen agian, baina hori jadanik ez da horrela"*) edo genero-teoriari buruzko iritzi txarra azaltzen delarik, jakintzatzat onartu gabe. Horiek bat egiten dute berdintasun ezak eta aldaketa-beharra ukatzeko: *"jendeak horretaz hitz egiten duenean, maila berean ipintzen ditu iritzia eta jakintza, beste gaietan ez bezala. Eta erabakiak hartzen dituenak gaiari buruzko iritziak dituenez eta hierarkia denez, haren iritzia nahikoa da"*.

- Luis Boninok (2004) "baretze-maniobrak" deritzen eta hemen "belusezko boikot" gisa sailkatu ditugunen bidez: emakumeen ustezko aliatu izan nahi duten gizonak, baina beren burua eraldatu gabe; holakoak, azkenean, boikot ikusezineko egintza bihurtzen dira,

**12** Aipu-marken arteko esaldi guztiak GGKEetako pertsonen (bai boluntarioen bai langile kontratatuen) hitzez-hitzezko adierazpenei dagozkie. 2010 eta 2015 bitartean egindako trebakuntza edo elkarrizketetan, eztabaida-taldeetan eta parte hartzeko lantegietan gertatu ziren, edota ikerketa honen bigarren fasean, 2016an, berariaz egindako elkarrizketetan.

edozein transbertsalizazio-neurriren aurrean ikusezin: *"ni berdintasunaren alde nago, baina bereizkeria positiboa ez zait bide egokia iruditzen"*. *"Alde emozionala erabiltzen ari da. Jendea gai honekin ahitu, frustratu eta sutan jartzen da, (orduan) norbaitek erreakzionatu egiten du eta zerbait esaten du edo zerbait sartzen uzten dizu, baina denboraren poderioz dena bere bidera itzultzen da. (...) Arrazoia ematen dizute, baina gero, berehala, esaten dizute orain beste horretan dagoela zentratu beharra"*.

## B. Erresistentzia (anti)politikoak:

Lagardek hizpide hartzen ditu politikaz fio ez direnak azpiraketa birsortzeko eremu delako, baina hemen kategoria hori darabilgu barnebiltzeko hainbat jarrera zeinek generoa *despolitizatzen* baitute edo ukatzen baitute berdintasun ezak egiturazkoak direla. Hona hemen adibide batzuk:

- Diskurtso esentzialistak eta genero-diferentziak naturalizatzekoak (*"emakumeek ez dituzte zuzendaritza-postuak bete nahi erantzukizun gehiago dakartzatelako eta gehiago balioesten dituztelako familia-erantzukizunak"; "emakumeek gizarte-bazterketako gaiekiko sentsibilitate handiagoa dute"; "generoa sentimendu kontua da"*) eta *statu quo*a onartzeko edo horrekin etsitzeko jarrerak: *"ohikoa da pentsatzea igualitarioak garenez ezer gutxi dagoela egiteke"*.

- Ukatzea bereizkeria sistemikoa eta berdintasuna posizio politikoetatik bilatzen jarraitzeko beharra (*"Egia da beheragoko maila teknikoetan emakume kontratatu gehiago daudela, baina nik ez dut uste emakumeak nahiago ditugulako denik, eskaintza-eskarien kontua da"; "Ez dago genero-diferentziarik, zuzendaritza-batzordean gizon gehiago egotea kasualitatea da"*). Zailagoa da ukapen hori esplizituki aurkitzea (politikoki okerra litzateke eta horri eustea) hitz egiten dugunean erakundeak lan egiten duen proiektuez

edo herrialdeez; horregatik bahetu ohi da zenbait iritzi baliatuta, hala nola kontsideratzea espontaneoki egingo dela aurrera, dela hezkuntzaren edo ekonomia-garapenaren ondorioz, edo dela, gehienez ere, emakumeentzako proiektuak eginez: *"Onartzen da genero-sentsibilitatea edukitzea emakumeentzako proiektuak egitea dela, baina gogoeta-falta ikusten dugu berdintasunik ezaren aurkako borrokak benetan ekartzen duenari buruz"*. Erresistentzia horiekin batera, ekitate-eskariekiko axolagabekeria edo arbuioa agertu ohi dira (Fernández Villanueva, 2010).

- Horri lotuta leudeke "berdintasunaren ameskeriatik" datozen jarrerak, bereizkeriak emakumeen bizitzan dituen ondorioak inbisibilizatzen baitituzte eta gogo-hoztasuna agertzea eta erantzukizunak onartzeari uko egitea baitakarte: *"ez dut uste diskriminazio positiboko neurriak aplikatu behar ditugunik zeren eta nire ustez puntu hori baitaukagu onartuta"; "ez dut kristalezko sabairik ikusten, (...) alderantziz"*. Gehiegizko orokortzeaz adoretzen dira (*"Hemen badago berdintasuna, begira: giza baliabideetako burua emakumea da, eta komunikazioko zuzendaria ere bai"; "ez dut ikusten (...) gizonei emakumeei baino promozio handiagoak egiten zaizkienik, alderantziz, eskualdeko koordinatzaileak (...) emakumeak dira, gizon bat izan ezik, eta gizajoa Kongon dago")* eta barne hartzen dituzte kanpo-kontroleko *locusak*[13] eta emakumeei leporatzen diete erantzukizuna: *"Hemen gizon baino emakume matxista gehiago daude"*.

- Neurri biko erregela, despolitizatzeko mekanismo gisa: Dema Morenok egiaztatu zuen gizon askok erantzuki hau egiten dietela generoarekin sentsibilizatuta dauden emakumeei: "politizatuegiak daudela, baina ez dute erantzuki bera erabiltzen gizonak kezkatzen dituzten beste gai batzuetarako, (...) horiek ere eduki politikoa izan

**13** Pertzepzioa da gertaerak jazotzen direla zoriaren, patuaren, zortearen edo besteen boterearen eta erabakien ondorioz. Ildo horretakoa da gertaerek norbere erabakitasunarekin zerikusirik ez duten pertzepzioa.

arren" (2007:81). Horrek agerian uzten du generoa gai tekniko baztergarritzat jotzen dutela: *"genero-ikuspegiaren lana beste desbideratze bat izango da etsai komunari, neoliberalismoari, aurre egitean"*. Seinalatu da beste eremu batzuek ere joera berezia dutela neurri biko erregelaren mende egotera, hala nola kontziliazioa (*"gizon batek kontziliazio-neurriak erabiltzen baditu aita mundiala da, eta gainera ze bapoak garen aitentzako kontziliazio-neurriak baititugu hemen, baina emakume batek egiten badu, pentsatzen den lehen gauza da ea konpromisoa gutxituko duen…"*) eta gatazken konponketa: *"emakume lankide batek arazo bat azaltzen duenean garrantzia kentzen zaio, ez zaio erantzunik ematen, (…) inoiz ez dut ikusi gizon batekin gauza bera egiten, nahiz eta adin eta kargu berekoa izan"*.

### C. Erresistentzia klasistak

Lagarderen aburuz, klasismoak, pertzepzio soziala barrentzen duelarik, absolutu eta lehentasunezko esten du klase-kondizioa, eta generoa deuseztatzen du botere-harremanen analisian. Horrek berekin hartzen ditu "kausaren hautatuak nortzuk diren erabakitzeko sektarismo ideologiko eta politikoak"; ondorioz, GGKEetan gerta daiteke emakumeen genero-analisiaren ordez klase-analisia aplikatzea bizi-egoerari, halako moldez non beste herrialde batzuetako emakumeengan zentratzen baita begirada, zeren eurak baitira pobreenak eta, azken batean, "besteak". Hemen, "erdiespen patriarkala da emakume bakoitza urruntzea bere buruarengandik eta hurbilen edo antzekoen dituen emakumeengandik. Besteen alde borrokatzean eta parte hartzean, emakume bakoitzak uko egiten dio bere buruaren eta hurbilenen alde egiteari" (Lagarde, *op. cit.*:15) (*"Inork ez du esango, baina arazo berari beste modu batean begiratzen zaio beste herrialde batean ikusten badugu, han gaitzesgarria baita; hemen, aldiz, oinarrizko gauzak ikusteko erresistentzia dago, eta harrigarria da"*), eta horrek zaildu egiten du jarrera politikoak indartzeko kolektiboen arteko batasuna (Fernández Villanueva, 2010):

*"errazagoa da diskurtso feminista zeure egitea urrun dauden emakumeez hitz egitean ezen ez zeure erakundekoez hitz egitean".*

Mota horretako erresistentziak lotuta daudeke oraindik bertikala eta paternalista den lankidetza-kontzepzio batekin, zeina teoria deskolonialak ez baitu barrendu, nahiz eta garapenaren paradigmei eta ikuspegiei buruzko diskurtsoak eboluzionatu diren. Inkoherentzia hori ez dator bat hasieran aipatu dugun GGKEen autopertzepzioarekin, zeinaren ondorioz erresistentzia horiek identifikatzen eta aitortzen zailenetakoak baitira. *"Etengabe ikusten dut, beste kultura batzuetako emakumeekin lan egitean, feministak ez diren edo generoaz ez dakiten teknikariek uste dutela emakume horiei gertatzen zaienaren arrazoia dela musulmanak direla edo toki jakin batekoak edo kultura matxista batekoak... Gizartearen ikuspegi orokorra da, eta hemen berdintasuna dagoela sinestearekin elkartzen da"*. Kultura-elementuekin elkartzean, erresistentzia klasistak zuzenean arrazistekin uztartu ahal dira (*"begirada aktibista "bizitzak salbatzekoa" izaten da, eta begirada karitatetsu hori (...) generoarekin bateraezina da. Egitura mentala da generoari eta arrazakeriari dagokienez"*). Hortaz, agerian jartzen da generoa, arraza eta klasea korapilatuta daudela zapalkuntza-sistema beraren zati gisa, Joan Acker soziologoak azaldu zuen moduan; hain zuzen ere, haren ustez, generoa erakundeetan sakonki sustraituta dagoen arren, "genero- eta arraza-ereduei erronka egitea baino zailagoa izan daiteke klase-ereduei erronka egitea" (1999:8).

## D. Erresistentzia misoginoak

Barne hartzen dituzte aitorpen-faltaren eta emakumeen agintearen, gaitasunen edo eskubideen ukapenaren adierazpen guztiak. Lagarderen arabera, emakumeen eskubideen eta agintearen aldeko borroka logika patriarkalaren arabera ulertzen da, alegia, emakume baten eskubideek beste emakume bati zerbait kentzen diotelakoan edo haren eskubide-faltan bermatzen direlakoan. Honelako jarrerak eragiteen dituzte:

- Errudunestea, lortutako erdiespenak indibidualizatzea, emakumeen infraordezkaritza justifikatzea gai diren emakume gutxi daudela argudiatuz (*“Zuzendaritza nagusiko kargudunak beti izan dira gizonak, eta garbitzaileak emakumeak dira. horren arrazoia da emakume garbitzaile gehiago daudela”; “Emakumeei ez zaizkie hainbeste interesatzen zuzendaritzako lanpostuak”*) eta beste meritokrazia-adierazpen batzuk (*“zuzendaritza-batzordearen osaeraren ikuspuntutik, pertsonak gaitasunen, ibilbideen eta trebetasunen arabera hautatu dira”*); ondorioz, emakumeei indibidualki hartuta egozten zaie erantzukizuna (Fernández Villanueva, 2010).

- Horri Bell eta Burnhamek deitu zioten "‘ez da hutsegiterik onartzen’ sindromea", eta hain da kaltegarria aldaketa-prozesuan, non berritzeko ahaleginak geldiarazten baititu (García Martínez, 2002): *“emakumeek behar dugu... gehiago demostratu, ez dut esan nahi azkarragoak izan behar dugunik, baina... (...) bikoitza egin behar duzu azkenean zure lanaren emaitza aitortua izateko”*. Hemen neurri biko erregelaren adierazpenak sartuko lirateke, antipolitiko bainoago misoginoagoak: *“Oso zaila da (...) matxistak diren eta erabakiak hartzean ez ezik tratuan ere jarrera sotilak dituzten gizonen jarrerak aldatzea, ez baitute emakumea bezala tratatzen hutsegite bat egiten duen edo lekuz kanpo dagoen gizona, (...) eta, jakina, pertsonak ukatu egingo du, esanez ez duela zerikusirik emakume izateak, baizik eta txarto egin duela. (...) liskar pertsonalaz haraindi frogatzen eta eteten zailak diren sotiltasunak dira”*.

- Feministen errebindikazioak eta ekintzak irrigarri utzi, sabotatu edo jazartzera ere hel daitezke (*“Ohiko ‘hor zatoz zu generoa dela eta ez dela, gogaikarriak zarete gero’, iseka-doinuan, baina azpidoinu bat duela”; “Pertsona batzuek generoari barre egiten diote maiz eta antze handiaz egin dezakete, baina horretan pentsatzen hasita, uf...”*), eta irrigarri uzte horiek sarritan metodologiekin

erlazionatuta daude (*“talde feministek erabilitako metodologiak oso erradikalak izan dira (…). Horren ondorioz, pertsonek pentsatzen dute gaiari heldu nahi dioten emakume guztiek etxea suntsitu nahi dutela eta emakumeei gizonaren aurkako gauzak irakatsi”; “txantxa asko egon dira, hala nola ‘feminista hauek direnak: gizonik ez!’… Txantxa horiek, egiatan, aditzera ematen dute ez direla lanaren dinamikak ulertu nahi”*). Sabotajea, erakunde-kulturak ez duenean zuzeneko erasorik ahalbidetzen, bide sotilagoetan gerta daiteke, eta askotan formen aurkako boikotean gauzatzen da, funtsari boikot egitea politikoki okerra izango litzateke eta: *“ongi samar landutako aurkezpen batean (…), birritan edo hirutan jaso nituen zenbait gauza kritikatzen zituzten iruzkinak, adibidez, orriaren kolorea okerra zela, (…) gaia beste bat izan balitz edo aurkezten zuen pertsona gizona izan balitz, sinetsita nago ez zela gertatuko”*.

## 5.2. Erakundeen erresistentziak

Bestalde, erakundeen erresistentziek lan-dinamikekin eta erakundeen egituraren barruan finkatzen diren beste langa batzuekin dute zerikusia. Arestian deskribatutako Longwe eta Moserren proposamenei jarraikiz, lurrunketa, inbisibilizazioa eta erresistentzia esplizitua bereizten ditugu:

### A. Lurrunketa

Asmo politika onak erakundearen ideietan edo bestelako agirietan berariazkoak izan arren praktikan burutzen ez direnean gertatzen da. Longweren arabera (1997), hiru mailatan jazo daitezke:

- **Maila politikoa:** prestatzetik ezartzera pasatzeko arazoak daudenean, neurri baten ukapena barne (izan ere, politikan esku hartzea eragiten du automatikoki): *“Giza baliabideen sailari planteatu*

*zitzaion hautapen-elkarrizketetan genero-berdintasunari buruzko sentsibilitatea identifikatzeko galderaren bat sartzea, argi eta garbi matxistak ziren pertsonak baztertu ahal izateko. Erantzuna ezezkoa izan zen, zeren eta hautagaiek generoa landuko ez bazuten ez zeukalako garrantzirik gai horretaz galdetzeak"*. Proposaturiko ekintzak "arintzeko" joerak hartzen ditu barne: jatorriz genero-berdintasun ezak deuseztatzeko diseinatzen diren arren, azkenean eraginkortasuna izaten da justifikatzen dituen leitmotiva. Ikuspegi horrek, Encina Villanuevaren ustez (2011:99),

> "berdintasunik ezari buruzko kezka planteatu arren, (…) planteatzen du emakumeengan 'inbertitzea' oso eraginkorra dela, haiengana heltzen dena (hezkuntza, osasuna, baliabide ekonomikoak…) transmititu egiten delako eta haien testuinguru osoari mesede egiten diolako. Horrek emakumeak 'besteentzako izakitzat' jotzen dituen ikuspegi tradizionalarekin zerikusia du".

Halaber, hemen nahirik, nahasterik edo erakundearen erabakiak hartzeko eta maila politikoko erantzukizunen formalizariorik eza ere legoke: "*Agian botere-postuetan sentsibilitate feminista duten pertsonak egon balira azkarrago joango zen. Zailtzen duena formalizaziorik eza da"*. Beste adibide bat diagnostikoaren eta planaren arteko harreman-falta da: diagnostikoak alderdi politiko eta kulturalagoari heldu arren, planak azkenean neurri teknikoak soilik jasotzen ditu, eta askotan horrela ere ezin da ezarri: "*planaren aplikazio praktikoa zuzendaritza-batzordetik pasatu behar denez, gelditu egiten da, ez delako lehentasunezkoa"*.

- **Plangintza-maila:** Longweren aburuz, hemen lurrunketaren arrazoi bakarra hutsegite bat izan daiteke eta protokoloez edo plangintza hobeez zuzen daiteke; egiten ez bada "beste zerbaitengatik" da: *"Berdintasun formala da, paperetan dago (...), baina gero, plangin-*

*tza-mailan, bat-batean generoa ez dago, eta inor ez bada jabetzen, gertatu da, ez da sartzen"; "Motorra-eta kontatu didate, baina baldin eta (...) gero plangintzan sartzen ez badut, ez du ezertarako balio. Edo plangintzan sartzen dut, baina beste batek egin dezala".*

- **Antolaketa-maila:** politiketarako egokitzapenik, pertsona espezializaturik edo ezartzeko aditurik ez dagoenean (*"oztopo handiena da ez dagoela egiturarik, pertsonarik, aurrekonturik, zeren eta orduan teknikarientzat hori 'gainera' bat baita, haren lan-kargari gehitzen zaiona"*; *"Zerbait egiten saiatzean, egiteko gaian gaikuntzarik ez duen jendea ipintzen baduzu, oztopatzeko modu bat da"*) edo lanpostu edo pertsona horiek izendatzeko atzerapena dagoenean. Halaber, langileek generoko unitate edo arduradun bat badagoela dakitenean baina ez dakitenean zertaz arduratzen den, harekin inoiz harremanik izan ez dutela aitortzen dutenean (*"niretzat, genero-unitatea erabateko ezezaguna da"*) edo kanporantz transbertsalizatzeko tresnatzat jotzen denean baina ez barrurantz egiteko tresnatzat; azken horrek ikuspegi politiko baino teknizistagoa agerian jartzen du (*"gure erakundean, genero-ikuspegia soilik teknikoa da"*, *"proiektuko inprimakiko genero-laukia"*). Horri gaineratzen zaio prozesuak amaitu ostean genero-egitura edo -erreferenteen mantentzea baxua dela edo plana diseinatutakoan ordu-liberazioa desagertzen dela, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak ekitatearen aldeko prozesuak ebaluatzeko egindako txostenak egiaztatzen duen moduan (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, Eusko Jaurlaritza, 2015).

Beste adierazpen bat burokraziaren desegokitasuna edo antolaketa- eta operazio-mailen arteko deskonexioa da. Longwek (1997) azaldu zuen bi antolaketa-mota edo -era daudela elkarrekin: alde batetik, "ageriko burokrazia", politika eta prozedura esplizitu eta publikoekin, eta, bestetik, "patriarkatu estalia", erakundean ere badagoena eta haren interesak arriskuan jartzen dituzten politikak eta zuzentarauak iraultzea ahalbidetzen duena. Egileak azaltzen du

biak elkarrekin bizi direla eta kontrako interesak dituztela —“printzipio burokratikoek ezartzea eskatzen dute, printzipio patriarkalek xahutzea eskatzen dute” (*op. cit.*:151)— eta hau baieztatzen du: “ezin dugu burokrazia politikoki neutrala balitz bezala jardun, (...) (izan ere,) funtsezko zeregina bete dezake patriarkatu gizartean mantentzeko eta errepikatzeko” (156. or.): *“Prozeduren eta metodologien gaia (...) gainditu egiten gaitu; izan ere, genero-ikuspegiarekin lan egiteko datu gehiago eduki behar dira, estrategiak zehaztu, burua ipini, erreferentziak bilatu, lan-tresnak aldatu... (...) eta jendea ez dago hori egiteko prest”*). Oso adibide ohiko bat da giza baliabideetako protokoloetan ez egokitzea edo betetzearen jarraipenik ez egitea: *“prozesuak ez daude estandarizatuta, elkarrizketa bakoitza guztiz diferentea izan daiteke egiten duen pertsonaren arabera”; “hautapen-prozesuen mailan (...) genero-politikan jasotzen da, baina gero erortzeko moduko jendea kontratatzen dute, profil osorik aurkitzen ez dutelako aitzakiarekin, eta halakorik ez dagoenean, erortzen dena generoa da”*. Halaber, antolaketa-mailako lurrunketa-elementu bat litzateke genero-ikaskuntzak sistematizatzeko eta sozializatzeko prozesurik ez aurreikustea.

Edozein mailatan xahutzeko funtsezko erresistentzia bat da, Nava San Miguelen arabera, “genero-gaia konnotazio politiko orotik banantzeko eta metahizkuntza teknifikatu batez janzteko joera; izan ere “gaiari buruzko espezializaziorik eta trebakuntza feministarik ez izatea dakar” (2009, 39. or.); Longwek (1997) “gordetzearen aldeko teoria” deitzen zion: garapen-prozesuaren alderdi politikoa eta ideologikoa aitortzeko egokia ez den hizkera teknikoa erabiltzea[14]. Aitzitik, zenbat eta politikoagoa izan prozesu bat, orduan eta areago gogortuko dira erresistentziak: “*erresistentziak egon ziren (...) gauza batzuk egitetik berariaz erakunde feminista izatera pasatu gine-*

**14** Erresistentzia hau hirugarren kategoriakoa ere (“erresistentzia esplizituak”) litzateke, baina hemen agertzen da izendatutako egileek lurrunketa-mekanismo gisa aipatu dutelako. Nolanahi ere, balio dezala erresistentziak dimentsio anitzekoak direla eta haien artean edo beste aldagai batzuekin elkartu daitezkeela aitortzeko.

*nean; hain zuzen, 40 bazkide eta Zuzendaritza Batzordeko pertsona bi irten ziren".*

## B. Inbisibilizazioa

Moserren arabera, jarraipen- eta ebaluazio-prozedurek "eremuan" gertatzen ari dena dokumentatzean huts egiten dutenean gertatzen da. Hala ere, hemen erakundean emakumeen presentzia, ahotsak, beharrak, egoera edo partaidetza zein erakundeko botere-harremanak inbisibilizatzen edo minimizatzen dituzten ekintza (edo ekintzarik ez) guztietara hedatuko litzateke. Hauek hartuko lituzke barne:

- Hegemonikoak ez diren estiloak eta ahotsak baztertzea edo lidergo maskulino indartsuak gehiengoa izatea: *"erabaki politikoko organoetan emakumea izatea arazotsua da, zailtasun handiagoa sortzen du, salbu eta boterea erabiltzeko eredu maskulinoarekin bat datozen ereduak erabiltzen badituzu"; "norabide diferente bat hartu edo talde bat modu diferentean koordinatu nahi duzun arren, askotan taldeak berak eskatzen du zuzendaritza klasikoa egotea eta, bestela, zeure erantzukizuna gain hartzen ez duzula leporatzen dizute, oso maltzurra da"*. Gainera, espazio publikoetan aurpegi ikusgaia gizonena izateko joera dago, eta horrek emakumeek agintea eta legitimotasuna berenganatzeko aukerak mugatzen ditu: *"Osasun eta Berdintasuneko Ministerioko sari bat eman digute, eta ez zuten taldeko inor bidali, denak emakumeak baitziren, zuzendari nagusia eta patronatukoa joan ziren jasotzera eta argazkia egitera, eragin zion zuzendaria ez zuten ez gonbidatu ez bisibilizatu"*; *"oso zaila da hori desegitea; izan ere, lan egiteko oso era diferentea daukate, hain barneratuta dute non batzuetan oso erresistentzia-modu sotilak diren, negoziatzeko modu diferenteak dauzkate, izugarri gustatzen zaie kanporantz aurpegi ikusgaia izatea erabakiak hartzeko espazioetan…".*

- Beren helburuak lan-ordutegiaren barruan betetzen dituzten, lan-ordutegi murriztuak dauzkaten edo "sakrifizio" pertsonal nabarmenik egiten ez duten pertsonak inbisibilizatzea eta haiei garrantzi sozial txikiagoa ematea, indibidualismo heroikoaren mitoarekin aurrez aurre, horrek areago aritzea edo ahalegintzea eskatzen baitu eta erakundean aitorpen sozial handiagoaz saritzen baita, nahiz eta banakako zein taldeko zaintzaren aurkako lan-ereduak izan: *"praktika patriarkalak daude, matxismo sustraituago hori, militantzia, konpromisoa nola ulertzen diren, kontu horiek ez dira aldatu"*.

- Ugaltze-lanak, genero-transbertsalizazioarekin zerikusia duten lanak edo bereziki feminizatuak dauden beste lan batzuk inbisibilizatzea edo ez balioestea: *"Nork prestatzen eta ateratzen du kafea bilera bat dagoenean? Zaintza-ekintza guztietako lidergoa oso femeninoa da"; "Gure lanpostuan deskribatuta dauden baino zeregin gehiago daude bulegoa ondo ibiltzeko beharrezkoak direnak, adibidez, ur-bidoia betetzea, partekatzeko janaria eramatea, ordenatzea, (...) baita aurkako alderdiei laguntza gehiago emateko edo taldean bizikidetza hobetzeko kontuak ere, (...) zure lana atzeratzen duten gauzak dira, (...) askotan aipatzen da, baina inoiz ez da konpontzen"*.

- Botere-bide informalak, aurretiko adostasunak, kristalezko sabaia edo emakumeek erabakiak hartzeko parte ez hartzea eta hori leheneratzeko mekanismorik ez egotea: *"zuzendaritza-taldearen barruan pertsona guztiek ez dute gauza bera kontatzen, (...) komunikazio informaleko eremu batzuk daude, non gizonen pisua askoz ere handiagoa den"*.

## C. Erresistentzia esplizitua

Mekanismo eraginkorrek prozesua blokeatzen dutenean, funtsean politikoa den eta generoko botere-harremanetan oinarritzen den aurkaritzarekin, prozedurako mugapen "teknokratikoen" ordez. Transbertsalizazioak duen helburu politikoa ukatzen, indargabetzen edo hutsaltzen

duen ekintza (edo ekintzarik ez) bat dakarren edo helburu hori ezartzea galarazten duen erabaki oro hartzen du barne, esate baterako:

- Ekitatearen aldeko neurriak ukatzea edo ez onestea edo horiek ezartzeko ekonomia, denbora edo giza baliabiderik ez esleitzea (edo nahikorik ez esleitzea), bereziki maila politikoan eta erabakiak hartzeko lanpostuetan: *"Proposamen bat egin zen duela zenbait urte biltzar batean zuzendaritza-batzarrean kuotak ezartzeko, baina biltzarrak ezetz bozkatu zuen (...) ezarketa zelako eta ez zetorrelako bat erakundearen pentsamoldearekin. Baina ez zen hausnartu zergatik diren garrantzitsuak kuotak"*. Funtsezko bi gai dira baliabideak (edo baliabiderik ez) esleitzea —horregatik hurrengo puntuan ere sartu da— eta sexu-jazarpenaren aurkako neurririk ez onestea (*"Lan-jazarpenari eta sexu-jazarpenari buruzko neurri zehatzik ez egoteak kezkatzen nau ni... (...) uste dudalako badaudela horrekin harremana duten botere-abusuak"*); sexu-jazarpenari berariazko tokia eskaini diogu geroago. Erakunde batzuetan, mota horretako erresistentziak prozesuak geldiarazi edo abandonarazi dituzte.

- Garrantzi txikikoak edo kostu altukoak direlako argudioen bidez lehentasunik ez ematea edo geroratzea (*"krisiaren aitzakiarekin, plana atzeratuz eta atzeratuz joan da"*); horrek prozesuak "betikotzen" ditu eta batez ere aurrekontuetan nabarmentzen da: *"Maila politikoan, lehentasuna altua da, baina ez da aurrekontuetan jasotzen, eta hortxe dago koxka. Egia da krisi-espiral batean gaudela, baina beste gauza batzuei ahaleginak eskaintzen dizkiete"; "Ez zegoen erabateko apusturik. Ez zegoen erresistentzia askorik, baina une bat heltzen zenean, funtsak esleitu behar baziren (...), nolabaiteko atzera martxa egoten zen"*. Lehentasunik ez ematea agenda edo gai-zerrenda kontrolatzean ere gauzatzen da, baita genero-programa erakunde-kulturara eta lan-egituretara eskas egokitzean ere: *"Badaude amatasunerako politikak, (...) telelana, baina ez dira nahikoak (...). Neurrien zailtasuna da lan-karga ez dela murrizten"*.

- Uko egitea informazio espezifikoa jakinarazteari eta/edo ez egotea informazio, zabalkunde edo sustapenik berdintasunerako neurriei buruz, eragozten delarik neurriok aplikatzea (*"Badakit hitzarmenean familiako eta laneko bizitza kontziliatzeari buruzko klausulatxo bat dagoela, baina inoiz ez didate azaldu, ez dakit zertan datzan edo aplikatu ahal dudan"*) edo, komunikazio-planik ez egonik, zilegitasuna kentzea prozesuari: *"Hemen sukaldean kafea hartuz jabetzen zara generoaz egiten ari garenaz, horrela jabetu nintzen ni berdintasun-plan bat egiten ari zela"; "Erakundean ez da gai horiei buruzko informaziorik ematen, (...) badaude mundu guztiak jakin behar dituen gauzak eta hori ez da informatzeko edo berri eman beharreko gaia"*. Azken horrek beste inkoherentzia bat agerrarazten du: gardentasunaren eta kontu ematearen garrantziarekiko bereziki sentibera den sektore batean, badirudi eremu jakin batzuk ez direla horiek aplikatzeko bezain garrantzitsuak: *"jarraipenean, generoak esanguratsua izateari uzten dio. Zure jarduera ez da horren arabera neurtuko"*.

- Azkenik, erakundean (eskainitako eta eskatutako) trebakuntzarik ez egoteak analizatzeko gaitasuna eta eraldatzeko ahalmena gutxitzen ditu. Kontsultatutako erakundeetatik, bakarrik berariaz feministak direnetan edo horretan lan egiten urte asko daramatzatenetan eskatzen da langile guztiak generoari buruz trebatzea ("*Gure politika da kontratazioetan eskatzen den lehen gauza beti izatea pertsona feminista izatea, zeren eta bestela oso zaila delako berriro trebakuntza-lana ez ezik jabekuntza-lana ere egitea*"). Gainerakoetan, genero-politikan estipulatu arren, "balioetsiko da" aipatzera mugatzen da, eta askotan elkarrizketa egiten duenaren araberakoa izaten da: "*Ez da lehentasunezko betekizuna, baina beste gaitasun profesionalen maila berean ipintzen da, (...) nahiz eta gero elkarrizketa egiten duen pertsonak galdetzen ez badu..."; "Langileak hautatzean (...) une erabakigarrian generoa bertan behera geratzen da"*.

# 06.

# FUNTSEZKO GAKOAK

Funtsezko gaiak edo erresistentzia gehien sortzen dituztenak prozesu-motaren arabera (parte-hartzaileagoa eta gardenagoa izan ala ez, kulturan arreta gehiago jarri ala ez) eta erakundean nagusi den kultura motaren arabera aldatzen dira. Horrela, gai formalagoek, adibidez, **kontziliazioak** edo **hizkuntza ez-sexistak**, erresistentziak sortzen dituzte maskulinotasunaren kultura sustraituagoa duten edo generoa lantzen ibilbide laburra egin duten erakundeetan (*“hemen amatasun-baimenerako 15 egun gehiago ematen dira, ofizialez eta edoskitzaroaz gain, aitentzat berdina izatea nahi genuen eta ezinezkoa izan zen, erantzuna zera izan zen: burutik gaude ala?”; “ikaragarriak dira hizkuntzaren gaiak sortzen zituen erresistentziak. Uste dut erresistentzia gehien sortzen zituzten gauzetako bat zela, baliabideekin batera”*). Aldiz, prozesua maila sakonago batera eramatea lortu dutenetan edo

hain patriarkala ez den erakunde-kultura dutenetan, erresistentziak azaleratzen dira **alderdi teknikotik politikora pasatzen denean** (*"esaten zuten (...) biltzarrak ezin zuela genero-unitatea sortzeari buruzko erabakirik hartu, egitura-kontua eta gai teknikoa, ez politikoa, zelako; hor eztabaida galanta izan genuen... pentsa. Gai teknikoa delako argudioa..."; "feminismoaz eta ez generoaz hitz egiten hasten zarenean, jendeak ez du apustu politikoa ulertzen"; "gai gogorrak feminismoa, generoaren politizazioa eta baliabideak dira"*).

Ibilbide luzeagoa duten GGKEetan, kontu ukiezinagoak baina boterearekiko lotura estua dutenak ematen dira argitara, esate baterako, **lidergoak** (*"uste dut lidergo-eredua zalantzan jartzea dela gairik heavyena. Nola antolatzen garen, nolakoak diren erabakiak hartzeko gure moduak (...). Oso zaila da hor sartzea"*), edo GKEentzat egiturazkoa den gai bat, hots, **militantzia**: "*militantzia gisa sortu zen erakunde batean militantzia eta antzeko balioak zalantzan jartzea erakundearen bihotza zalantzan jartzea da. Hor erakundeak eta haren dinamika egituratuek, ikusezinak diren arren, uko egiten diote horri. Militantziaren gaia lankidetzako jendeak konponduta ez daukagun gai pertsonala da eta antolaketa-mailan oso zaila da maneiatzen"*.

Azkenik, funtsezkoa da —eta bereziki garrantzitsua bere inplikazio eta ondorioak direla eta— **sexu-jazarpenaren** gaia, bai politika prestatzerakoan ("*behar ez zelako sentsazioa zegoen (...) gehienak emakumeak izateagatik"*) bai abian jartzerakoan: *"Paperaren gainean argi dirudien arren, jendeak beti dauzka bat ez datozen milaka interpretazio, eta sortu ziren kasuak oso konplexuak izan dira"*. Hemen sortzen diren erresistentziek, aldaketa blokeatzeaz edo generoaren asmo politikoa edo eraldatzailea indargabetzeaz gain, emakumeen eskubideen urraketa larriak eta indarkeria-egoerak inbisibilizatzen dituzte, erakundearen eta sektorearen irudia "babesteari" buruzko argudioak baliatuz: *"Sexu-jazarpenari buruzko protokoloak egiteaz hitz egiten hasten denean, horrek zorua hainbeste mugitzen du... zuzen-*

*daritza-batzordeari izu-ikara ematen dio norbaitek esan ahal izateak erakundean hori gertatzen dela"; "Abusuak eta indarkeriak daudenean, askotan ezkutatzeko ahalegina egiten da, egon daitezkeen iskanbila publikoak saihesteko, irudia eta ospe soziala babesteko"; "hemen emakumeak salatzera ausartu ez diren sexu-jazarpeneko kasuak egon dira eta horien gainean ez da ezer egin".*

Edonola ere, erresistentziarik ez badago, susma daiteke diagnostikoa edo prozesua esparru teknikoan edo batez ere kuantitatiboan geratu dela, eta, hor, erresistentziarik ez egoteak horrelakoak sortzeak baino gehiago kezkatu beharko luke; izan ere, horrek gatazkak sor ditzake, baina orobat ispiluaren aurrean jartzen gaitu eta aldatzeko bideak irekitzen laguntzen du. Ildo horretan azpimarratu dugu erresistentziak argitzearen garrantzia, NBE Emakumeak erakundeak (2015) egiaztatzen duen moduan.

# 07.

# EZTABAIDATZEN HASTEKO AZKEN GOGOETAK

Lehenengo eta behin, eta gogoeta zehatzei ekin aurretik, argitu behar da kontu batzuk, erresistentzia gisa sailkatu beharrean, “erresistentzia aurreko baldintzatzat” jo daitezkeela: politika bat onartzeko baldintzak haren arrakasta zehazteko funtsezkoak direnez, genero-politikak benetan abian jartzeko oztopoak diren edo erresistentzia gutxiago sortzen laguntzen duten baldintzak identifika genitzake. Faktore hauen menpe daude, besteak beste: trebakuntza feministaren maila, patriarkala ez den eta komunikatzeko, erabakiak hartzeko eta kontu emateko bide gardenak dituen elkarlaneko erakunde-kultura baten nagusitasuna edo partaidetzara irekita dagoen eta berdintasunezko botere-harremanak dauzkan egitura bat[15]. Baldintza horiek edukitzeak ez du esan nahi erresistentziarik egongo ez denik, baina politiken ezarketa eta eraldaketaren bidea erraztu ditzake. Horietako batzuk alderdi hauek baldintzatzen dituzte:

**15** Lut Mergaertek (2012) baieztatzen duen moduan, “botere-harremanak berdintasunezkoak diren edo genero-berdintasunaren aldeko jarrerak hobeak diren erakundeetan, aldaketarako erresistentzia gutxiago egongo dira” (hemen aipatuta: Lombardo eta Mergaert, 2012).

- Erakundeko prozesuei eta lan-kulturari buruzko ikuspegi-mota. Euskadiko GKEetako ekitatearen aldeko prozesuak ebaluatzeko txostenaren arabera, “oztopo handia da ikusmolde produktibista-efizientistak egotea, zeren, prozesuan ikastea baino gehiago, errezeta moduko irtenbideak bilatzen baitituzte eta, egiatan, ezkutatu egiten baitituzte generoaren gaiak sortzen dituen erresistentziak” (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, Eusko Jaurlaritza, 2015). Aitzitik, “patriarkala ez den talde-lana” (Mugarik Gabe, 2013), erakundeko lan-moduen aniztasuna bisibilizatzen duena, ahalduntze kolektiboko tresna eta aldaketaren eragilea izango da.

- Krisiaren testuingurua, langileen eta baliabideen kopurua murriztea baitakar eta bai planen ezarketari bai diseinu eta diagnostikoari kalte egiten baitie (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, Eusko Jaurlaritza, 2015). Gainera, arreta beste gai batzuetan jartzea errazten du: *“presa- eta diru-kontua dago. Orain generoak ez du dirurik ematen, larrialdiek ematen dute”; “Orain oztopo nagusia ekonomikoa da (...), dirurik ez dagoela, egiten oso zaila dela... batzuetan egia da, baina beste batzuetan ez”*. Elkarrizketatuetako batek bere buruari galdetzen zion: berdintasuna oparoaldietarako bakarrik ote da?

- Langileen mugikortasuna, lurrunketa errazten baitu eta ezagutzaren kudeaketa, jabetzea eta prozesuen jasangarritasuna zailtzen baititu: *“Arazo bat da (...) sektorean mugikortasun handia daukagula (...) txitean-pitean berriro konbentzitu behar dugula. Batzordearekin berdin gertatzen da, bi urtean behin motorra berriz saldu behar”*. Gai hori baldintzatzaile izatetik erresistentzia izatera pasatzen da genero-arduradunen lanpostuei berariaz eragiten dienean, honako hau ekartzen du eta: “prozesuak moteltzea eta, zenbait kasutan, memoria historikoa galtzea, erakundeak ekitateari buruz dituen aurrekariena ez ezik aldaketa-prozesuen

lehenengo aldietan gertatutakoarena ere" (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, Eusko Jaurlaritza, 2015:107).

Hori argituta, lehen gogoeta eta begi-bistakoena da **GGKEen barruko genero-transbertsalizazioa errealitate bat izatetik urrun dagoela, diskurtsoen eta praxiaren arteko arraila egiaztatu baita**. Oro har, generoaren lehentasun-maila oraindik baxua da eta adierazpen formaletatik kanpo dago, kasu askotan, antza, eraldatzeko helburu batekin zerikusirik ez duten beste mota bateko interes estrategikoak direla medio burutu baita: *"[Genero-estrategia bat egiteko motibazioa] legeria eta Europako Gizarte Funtsaren araberako derrigortasuna izan dira, diru-laguntza bat lortzeko, etab."; "Diru-laguntzetarako lehiatzerakoan, puntu eta betekizunetako bat berdintasun-plan bat edukitzea da"*. Lehentasun-falta hori erresistentzia-maila altuan nabarmentzen da (*"Emakumeen eskubideak gai nagusi bihurtzeak erresistentzia ugari sortu ditu (...) pentsatzen delako hain garrantzitsua ez den zerbaiti garrantzi gehiegi ematen ari zaiola"*), baita generoa oraindik "estra" bat delako gehiengoaren pertzepzioan (*"Ikusmoldea da askotan haientzat garrantzitsuak ez diren gauzetan denbora galtzen duzula eta ia ez zarela garrantzitsua, azken mezua, ulertzen ari, helburua beste gauza batzuk dira, eta orduan egin behar ere ez den zerbaitetara desbideratzen ari zara arreta"*) eta kontu emateko mekanismo-faltan ere: *"Onartzen da hori proiektu batean zorrozki betetzen ez bada ez dela larria, eta agian beste alderdi batzuekin proiektuaren krisia eragingo luke, erakunde bazkidearekiko harremanen krisia... baina honekin, aplikatzen ez bada, zer egingo diogu ba"*. Horrek guztiak agerian jartzen du diskurtsoan ahalduntze-ikuspegi bat lortu den arren praktikan ongizate- edo eraginkortasun-ikuspegiak badirauela[16]: *"dena atzeratuta geratzen da generoa garapenean ikuspegiari dagokionez, badirudi oraindik emakumea garapenean fasetik generoa garapenean fasera pasatzen ari garela, astiro-astiro"*.

**16** Ikuspegi bakoitzaren inplikazioak ezagutzeko edo horietan sakontzeko, ikusi Kabeer, 1998.

Diskurtsoen eta praktiken arteko distantzia baieztatzen duen beste elementu bat erakundeko generoko arduradunen aginte-pertzepzioa da: dirudienez, maila bereko lanpostuetan agintea nagusiki organigramako posizioak definitzen duen arren, generoko arduradunarena kargua betetzen duenaren gaitasun pertsonalak zehazten du eta bakarrik urteak joan eta ondo egindako lana bisibilizatu ahala finkatzen da. Hori, mugikortasunarekin batera, xahutze-mekanismo eraginkorra da: *"Batzuetan joatea pentsatu dut, (...) baina nik daukadan eragin-boterea ez du edukiko berdintasuneko arduradun gisa datorrena, hor ere agintea xahutu egiten da"; "Nik sarritan orain generoaz arduratzen den pertsonarekin hitz egiten dut eta (...) niri erakutsiko ez lidaketen irmotasunarekin ukatzen dizkiote gauzak. Egia da lanpostuak ezin izan duela aginte-eskudantziarik bereganatu"*.

Bi elementu horiek ikusita, arraila honela laburbil liteke: alderdi formalean ez dago lehentasunik, eta alderdi informalean ez dago legitimotasunik. Eta garrantzitsua da bien arteko harremana bisibilizatzea; izan ere, arraila txikiagotu nahi duten erakundeetan ohikoena da lehen alderdian lan egitea eta bigarrena inbisibilizatzea.

Bigarren gogoeta da **ez daukagula erresistentziak identifikatu eta kudeatzeko espazio edo tresnarik**. Horrek ikastea, jardunbide egokiak sortzea eta, azken finean, eraldaketaren bidea erraztea galarazten du: *"Erresistentziak biltzen dituen hornidurarik, egiturarik edo kudeaketarik ez dagoenez, kudeatu edo ikasi dena galdu egiten da"*; "*erakundean ez dago hori jorratzeko espaziorik. (...) nik bazkalorduan egiten dut, (...) azkenean miniespazio informalak bilatzen dituzu eta horietan bermatzen zara"; "erresistentziak entzun edo bizi dituztenek dakizkite, ez dira partekatu eta ez da pentsatu erakundearenak direla, pertsonaltzat jo dira"*. Horri dagokionez estrategiak sortzeak ahalbidetuko luke inkoherentziei aurre egitea, erresistentzien eta genero-politiken arrakastaren edo porrotaren arteko loturak analizatzea, aliantza berriak sortzeko eta ahalduntzeko bideak irekitzea eta, heda-

duraz, garapenean generoa *birpolitizatzeko* aurrera egitea. Izan ere, erresistentziak inbisibilizazioaren azpian dagoena, berriro ere, generoaren ikusmolde teknikoa da: ez badut espaziorik behar lan-tresna tekniko bat aplikatzeari dagokionez esperientziak edo erresistentziak sozializatzeko, zergatik behar izango dut generoari dagokionez?

Horri lotuta, zenbait elkarrizketatuk hausnartu zuten generoaren ikusmolde teknikoa diskurtso gauzatuak eraikitzeko tresna eraginkorra bihurtzen dela: zenbat eta trebakuntza eta tresna tekniko gehiago eskaini, orduan eta landuagoak eta indartsuagoak izango dira argudioak, eta horiek, paradoxikoki, aurrera egiten ez jarraitzeko aitzakiak izango dira: *"Hemen lana planteatzeko moduarekin agian akats bat egon zen, hasieran oso maila tekniko batera eramatea azkenean kaltegarria izan da, eta, horren ondorioz, jendeak proiektuetan oso ondo hitz egiten du generoaz, baina erakunde-politikaren, erabakien mailara eramaten duzunean, hortxe sortzen dira erresistentziak"*; *"askotan esaten da (...) badaukagula politika, badaukagula plana... gauzak badauzkagunez, baretu egingo dugu eta aldaketa jakin batzuk egin ahal ditugu, baina funtsezko gauzarik ukitu gabe"*. Horregatik, Maitrayee Mukhopadhyayek (ONU Emakumeak, 2015) hertsatzen du trebakuntzak genero-analisietan eta gizarte-harremanen politikan ardaztu daitezen, transbertsalizatzeko prozedura eta tresna teknikoetan ardaztu beharrean.

Hirugarren gogoeta **aldaketaren teoriaren "bottom-up" ikuspegiaren eragingarritasunaren**[17] ingurukoa da, genero-eraldaketara aplikatuta: noranzko bakarreko estrategia baten mugak argitara ematen dira; izan ere, horrek botere-harremanen sare konplexua

**17** Gero eta GGKE gehiago oinarritzen dira aldaketaren teoriaren metodologietan beren programa eta ebaluazioetarako (sakontzeko, ikusi Ligero et al., 2014), baina neurri txikiagoan aldaketako barne-prozesuak sustatzeko. Bere proposamenen barruan, "bottom-up" ikuspegia hauxe litzateke: kritikoki goitik beherako (edo maila politikotik teknikorako) ikuspegi linealaren aurka dagoena eta nahasitako eragileetan eta aldaketa behetik sustatzeko beharrean arreta berezia jartzen duena, ezarketa hierarkikoaren ordez negoziazioa eta ikaskuntza pribilegiatzen dituzten ikuspegi partehartzaileagoekin.

sinplifikatzeko joera izango du; ikuspegi horretatik bakarrik sustatutako aldaketek, azkenean, langa burokratikoekin (Longwe, 1997) edo maila politikoko edo zuzendaritza-mailako erresistentziekin topo egingo du, eta horiek aldaketa eraginkortasunez blokeatzen dute. Genero-harremanen benetako eraldaketak alderdi guztietan (operatiboa, epistemologikoa, ontologikoa) aldaketak egitea eskatzen duenez, horretarako zumeak horietatik guztietatik bilbatu behar dira, eta masa kritiko esanguratsua egon behar du, baina baita aliantzak ere maila politikoan erabakiak hartzeko funtsezko lanpostuetan: *"Eragin-postu garrantzitsuetan pertsonak dauzkazunean gauzak lortzen dira; pertsona horiek joan bezain laster, gaia bertan behera geratzen da. Sartzeko ateak eragin eta erabakiak hartzeko gaitasun handieneko lanpostuetan dauden pertsonengan daude"; "Organo politikoek jabetu behar dute, baina gorantz bultzatzen duen masa kritiko nahikoa ere egon behar du, biek bat egin behar dute"*. Bestela, genero-prozesuetan liderrak diren eta "bottom-up" ikuspegiaren indarrarekin soilik (hain zuzen jabetze eta sakontze demokratikoak errazten baititu) fidatzen diren pertsonek —oztopoz betetako— iraupen-lasterketa luze baterako presta daitezke.

Gai horrek harreman estua du generoko arduradunaren aginte-mailarekin —arestian aipatu dugu— eta haren unitate edo sailaren eragin-botere korrelatiboarekin: "*Boterea badaukazu, egin dezakezu, horregatik garrantzitsua da non ipintzen diren genero-egiturak erakundearen barruan*". Baina genero-unitateak organigraman botere-posizioa daukan kasuetan ere paradoxa bat gerta daiteke, alegia, horri sinbolikoki erabakiak hartzean eragin-boterea kentzea. Horrela, elkarrizketatuetako batek azaldu zuen bera zuzenean koordinazio orokorraren menpe dagoela, saileko zuzendaritzak bezala, baina ez daukala harremanik haiekin: "*Sail baten barruan pertsonekin egon beharko nuke, talde-bilerak eduki. (...) Beste zuzendariak ez dira arduratzen, esaten dute koordinatzaile orokorraren menpe nagoela eta haiekin zerikusirik ez daukadala...*".

Azkenik, premiazkoa da **genero-prozesuek haien buru diren pertsonen bizitzan eta osasunean duten eraginari** buruz gogoeta egitea. Aldaketaz arduratzeak eta erresistentzien aurka bakarrik borrokatzeak kostu emozional altuak dakartza berekin, "burnout" sindromea pairatzeko punturaino, hau da, erreta bukatu eta erakundea uzteraino (*"generoko arduraduna joan egin zen prozesua bukatu zenean, eta oso esanguratsua da"; "honetan urte asko daramatzazunean, azkenean edo gelditu egiten zara edo erakunde feminista batera joaten zara, bestela, erreleboa eduki behar da, zuzendaritzetan bezala, oso postu zailak direlako"*). Horrek bai ondorio pertsonalak bai erakundearen gainekoak dauzka. Alderdi pertsonalean, aitorpen-faltak eta ikusezin, izendatu gabe eta gutxitan konponduta geratzen diren erresistentzien iraupenak azkenean ahitu ahal zaituzte (*"prozesu desatsegin bat, non gauzak zalantzan jartzen diren, oztopoak ipintzen dituzten, amaierara arte konplikatua izan den, higadura handia da"*), zer egin behar den eta nola egin behar den galdetzen bizitzea baita (*"azkenean erakundeak ez dira egoteko lekuak, norberaren gogoeta gainditzen duen zerbait da, irten beharra dago (...), autoestimua birrindu dizutelako zein hegoak ebaki dizkizutelako"*).

Horri dagokionez, elkarrizketatu batek "erradikal neurritsuaren" figura aipatu zuen. Termino hori Meyerson eta Scullyk sortu zuten honelako pertsonez aritzeko: "beren erakundeekin eta orobat funtsean desberdina den eta agian beren erakundean nagusi den kulturarekin bat ez datorren kausa, erkidego edo ideologia batekin identifikatzen direnak eta konprometituta daudenak" (1994:586). *Statu quo*a zalantzan jartzeko gaitasunarekin du zerikusia, neurritasunari eusten diozun edo moderazioa erabiltzen duzun bitartean. "Nortasun anbibalenteei" eustearekin bat dator, alegia, saiatzen zara kontziliatzen zure nortasun profesionalari eta zure erakundeari lotutako balioak eta iturri pertsonalei, erakundeaz kanpokoei eta beste nortasun-politika batzuei, lehenengoen aurka daudenei, lotutakoak. Horri eustean, genero-arduradunak estratega-funtzioa betetzen du etengabe

eta ondo aukeratu behar ditu bere urratsak, badakielako legitimotasun, baliabide eta botere mugatuak dituela (*“ikasten duzu aukeratzen borrokatuko duzun gudua, gauza pila bat pasatzen uzten dut inbertitu behar dudanarekin irabazi ahal dudanak ez duelako merezi”*).

Indarrak eta arrakasta-aukerak etengabe balantzan jartzearen ondorio maltzur bat da nork bere estrategiak zalantzen jartzen dituela. Horrek erruduntzat jotzea eragin dezake, agente “despolitizatzailea” bihurtzeko posibilitatea dela eta: *“Ez dakit zein puntutaraino, nortzuk gauden honetan, erantzuleak gara gauzak diren moduan esan nahi ez ditugulako, zuzendaritzari zerbait aurkeztera zoazenean kamuflatzen saiatzen zara pasa dadin, geure burua zentsuratuz goaz, edukia murriztuz joaten da. Batzuetan estrategikoa da hori egitea, behintzat sar dadin, baina bide horretan garrantzia kentzeko bidea dago, eta azkenean zure ustez izan beharko lukeenaren bertsio eztitua izan daiteke”*. Engranaje patriarkalari koska bat estuago egitea da: erresistentziek, aldi berean, autozentsura eta errua sortzen dituzte azkenean. Beste elkarrizketatu batek adierazi zuenez, “*ez da autozentsura, autozaintza baizik. Akigarria delako da batzuetan*”.

Erakundeari dagokionez, bi ondorio nagusi daude. Lehena, giza kapitalaren galera: eraldatzeko gaitasun handiena duten pertsonak “kanporatzeak” inplikazio sakonak ditu erakunde-kultura baten edo bestearen eta, azkenik, garapen-eredu baten edo bestearen eraikuntzan. Meyerson eta Scullyren arabera, garrantzitsua da genero-prozesuak hasten dituzten erakundeek figura horiek aldaketarako funtsezkotzat jotzea, “izan ere, erakundetik joaten badira, erretzen badira edo kooptatu bihurtzen badira, ezin diote aldaketa-prozesuari barrutik guztiz lagundu” (1994:587). Dena den, ez dirudi oraingoz balioesten dakitenik: *“Hasierako frustraziotik orain heltzen naizen puntura heltzera pasatu naiz. Nik jada ez dut erakundean sinesten, nire proiektuan eta nire lan-ordutegian sinesten dut, azkenean asko frustratzen duelako”*. Bigarren ondorioa da hierarkien eraikuntza

finkatzen dela: gai horiek kudeatzen dituzten pertsonen aginte-falta azkenean lanpostura berera mugitzen da, organigraman duen posizioa gorabehera, eta, horrela, generoko arduradunaren eta maila bereko beste postuen arteko botere-arraila betikotzen da.

Horrek guztiak mahai gainean jartzen du erakundeak ekitatiboago bihurtzeko eta beren balio eta diskurtsoekin koherenteago izateko konpromisoak militantzia pertsonaleko kontua izaten jarraitzen duela eta erronka hori gain hartzen duten pertsonek ez daukatela egitura, estrategia edo laguntza nahikorik militantzia hori Barry eta Djordjevicek (2007) aldezten zuten moduan jasangarria izateko. Bi premia bizi daude: batetik, ezinegon indibidualak detektatzea, partekatzea eta horiei eduki politikoa ematea eta, bestetik, bai kudeaketa eta zaintza indibiduala bai kudeaketa eta eraldaketa kolektiboa xede dituzten estrategiak sortzea. GGKEak berdintasun ezaren eraginetik libre dauden egiturak direlako sinesmena hausten ez badugu, ez dugu lortuko generoa garapenean birpolitizatzeko prozesua galgatzen duten erresistentziak indargabetzea.

Nolanahi ere, zailtasunak bisibilizatuta ere, ezin dugu aipatu gabe utzi alde positiboa: azken batean, ekitatearen aldeko aldaketa-prozesuak funtsezko esperientziak dira haietan ohartuki parte hartzen dutenen bizitzan eta, erronka garrantzitsuak izanik, ikasi, hazi eta ahalduntzeko aukera handiak ematen dizkiete haietan buru egiten duten pertsonei (*“nik, pertsonalki, asko ikasi eta irabazi dut”*). Halere, horrek ez du eragingo haiek balioesten jakin ez duten erakundeetan.

# ANÁLISIS DE LAS RESISTENCIAS AL GÉNERO EN LAS ONG DE DESARROLLO

Visibilizando las incoherencias
como estrategia para la transformación

LORENA PAJARES SÁNCHEZ

# ÍNDICE

**01. Introducción** .......... **61**

**02 . Breve nota metodológica** .......... **63**

**03. Contextualizando, que es feminista: género y tercer sector** .... **65**

**04. Pero ¿de qué hablamos cuando hablamos de resistencias?** .... **69**

4.1 El recorrido en el estudio de las resistencias al género .......... 70

**05. Propuesta de catalogación de las resistencias al género** .......... **75**

5.1 Resistencias personales .......... 76

5.2 Resistencias organizacionales .......... 83

**06. Nudos críticos** .......... **91**

**07. Reflexiones finales para abrir el debate** .......... **95**

**Referencias bibliográficas** .......... **104**

# NOTA DE LA AUTORA

El presente texto es el resultado de una investigación desarrollada en dos fases diferentes entre 2014 y 2016 y de la que se han publicado algunas partes. Poder tener entre las manos la publicación completa del estudio solo ha sido posible gracias al interés de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, que incorpora como primer eje de actuación de su estrategia transversal de género el "Favorecer procesos de institucionalización de la perspectiva de género, tanto en los agentes de cooperación vascos como al interior de la AVCD"[1], y que es la primera Agencia de Cooperación en nuestro Estado que pone el foco en el estudio de las resistencias al género como parte ineludible de este tipo de procesos. Esta publicación, por tanto, incluye, profundiza y amplía el contenido, por un lado, del artículo "Las resistencias al género en el desarrollo: brechas entre discursos y prácticas de las ONG de desarrollo", publicado en enero de 2017 en la Revista Española de Desarrollo y Cooperación nº39 del IUDC (UCM), y por otro, de la Comunicación presentada en el Congreso 'Noviembre Feminista 2016' (UCM), en la mesa "Estrategias feministas de lucha política, análisis y deconstrucción del orden social", y que será parte del libro "Tejiendo Redes, Transformando Realidades", de próxima publicación en la línea editorial del Instituto de Investigaciones Feministas de la UCM.

Mi profundo agradecimiento a la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo por atreverse con lo más intangible y, en concreto, mi agradecimiento y reconocimiento a su Responsable de Género y Desarrollo, Edurne Bengoetxea Sorozábal y a la Responsable de Investigación, Formación y Género de la Coordinadora de ONGD de Euskadi, Silvia de Gregorio Etxebarría, por aceptar en su momento participar en la investigación que aquí se presenta, por el apoyo recibido para su difusión y por el trabajo que ambas realizan para conseguir organizaciones cada día un poquito más transformadoras.

**1** III Plan Director de la Cooperación al Desarrollo 2014-2017. Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, Gobierno Vasco. Pág. 45.

"Es incomparablemente más difícil cambiar en los hombres los puntos de vista basados en prejuicios que los adquiridos por razones que les parecieron más convincentes o sólidas. Podemos incluir entre los prejuicios el que se tiene vulgarmente sobre la diferencia entre los dos sexos y todo lo que depende de ella. No existe ninguno tan antiguo ni tan universal".

POULAIN DE LA BARRE, 1673

# 01.

# INTRODUCCIÓN

Donde hay poder, hay resistencia... a perderlo. Esta pequeña vuelta de tuerca a la frase de Foucault es un hecho que cualquier organización que se haya embarcado en un proceso de cambio, habrá podido experimentar. El presente estudio parte de la convicción de que los procesos de cambio organizacional y, en concreto, los procesos de género, no son una cuestión meramente técnica, sino política y cultural: afectan al corazón mismo de las organizaciones, a la calidad de vida de las personas que las conforman, a sus opciones de contribuir al desarrollo y mejora de sus organizaciones y sociedades, así como de beneficiarse de sus avances. Conllevan radicales cambios culturales que pueden provocar resistencias y miedos, pues abren incertidumbres sobre el futuro. A veces, esos miedos están vinculados a las generales resistencias al cambio de cualquier grupo, otras tienen un fundamento claro en la posible desestabilización de asentadas relaciones de poder y en la resistencia a la pérdida de privilegios. Puede parecer obvio, y sin embargo, en algunos ámbitos sacarlo a la luz es más complicado, especialmente si hablamos de un sector cuya misión se asocia ineludiblemente a la transformación: Las Organizaciones no Gubernamentales de Desarrollo (ONGD).

Se trata de un tema que está generando quiebras en las relaciones interpersonales en las organizaciones, pero que provoca también alianzas, creación y fortalecimiento de vínculos, reflexiones y aprendizajes sobre las identidades individuales y organizacionales, revisiones críticas de las relaciones de poder y, sobre todo, el cuestionamiento de las creencias, prácticas, costumbres y normas sexistas que muchas veces son pilares invisibles de la cultura organizacional.

